Europan mila herri desberdin daude.

#Europan mila herri desberdin daude.

# *GOGORATU!*

Gaztelaniazko *diferente* izenondoa (eta *distinto*, *diverso* sinonimoak ere) ez da beti desberdintasuna adierazteko erabiltzen.

## *diferentes pueblos*
## *los diferentes pueblos*

- Europako *zenbait* herri ikertu zituen Vossler antropologoak.

- #Europako herri desberdinak ikertu zituen Vossler antropologoak.

ADI!

Laukitxoak (#) ez du adierazten halakoetan *desberdin* izenondoa erabiltzea gaizki dagoela, baizik zalantzazkoa edo desegokia dela.

## *diferentes pueblos*
## *los diferentes pueblos*

- Europako 14 *herritako* ordezkariak bildu ziren jardunaldietan.

- #Europako 14 herri desberdinetako ordezkariak bildu ziren jardunaldietan.

## *los diferentes pueblos*

- Europako herri ***bakoitzeko*** bi ordezkari egon ziren jardunaldietan.

- # Europako herri desberdinetako bi ordezkari egon ziren jardunaldietan.